

Euskal AEko industria-jarduera % 3,1 hazi da 2021eko irailean


2021eko lehenengo bederatzi hilabeteetan Industria produkzioaren indizeak metatutako igoera % 11,8koa izan da

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegiko termino homogeneoetan, Euskal AEko industria-produkzioa, 2021eko irailean, 2020ko hil berean baino %3,1 handiagoa izan da. 2021eko lehenengo bederatzi hilabeteetako balantzearen amaieran, industria-jarduerak % 11,8ko igoera izan du.

Iraila aurreko hilarekin, 2021eko abuztuarekin, alderatuta, Euskal AEko industria-produkzioa % 1,3 murriztu da, urtaro-ondorioak zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2021eko iraileko indizearen bilakaera positiboa izan da industria-sektore handi guztietan, 2020ko irailarekin alderatuta. *Kontsumo-ondasunek*, orotara, % 10,3ko igoera izan dute. *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 27,7ko igoera eduki dute, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek*, % 6,1ekoa. *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* epigrafean altzariak eta etxeko tresnak fabrikatzeko jarduerak ageri dira. Elikagaien fabrikazioa, prozesatzea eta kontserbazioa, garbiketarako eta higienerako produktuen fabrikazioa eta jantziak egitea dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* sektore handiaren barruko jarduerak.

Ekipo-ondasunak, non motordun ibilgailuen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbideko materialaren egitea eta aireontziak edo itsasontziak egitea barruan dauden, % 3,8 igo dira; halaber, *Bitarteko ondasunak* % 0,9 igo dira urte artean (horien artean daude metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa). *Energia*, bestalde, % 3,1 igo da 2021eko irailean. Sektore horretan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2021ko Iraila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Ira2021 / Ira2020	A(Ira2021) / A(Ira2020)(*)	Ira2021 / Abu2021	Abu2021 / Uzt2021
Indize orokorra				
Euskal AE	3,1	11,8	-1,3	0,3
Araba/Álava	-9,4	9,8	-10,0	3,2
Bizkaia	5,6	10,3	1,4	-1,6
Gipuzkoa	8,3	14,6	1,4	0,4
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	10,3	12,0	4,6	-5,7
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	27,7	37,8	5,4	-8,9
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	6,1	6,7	4,4	-4,8
Ekipo-ondasunak	3,8	13,8	-2,0	-0,8
Bitarteko ondasunak	0,9	14,7	-0,8	-0,1
Energia	3,1	-4,2	1,1	-1,8

(*) 2021ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2020eko aldi beraren aldean

Xehekiago, Euskal AEko industrian pisurik handiena duten sektoreen artean, 2021eko irailean urte arteko hazkunderik handiena izan dutenak izan dira *Makineria eta ekipoa* (% 9,9ko hazkunde), *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 9,4koa) eta *Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak* (% 6,8koa). Aitzitik, urte arteko bilakaeran zeinu negatiboa izan duten sektoreak hauexek izan dira: *Garraio-materiala* (% 7,1eko jaitsiera) eta *Kautxua eta plastikoak* (% 5,1koa).

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	3,4
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	0,6
09 - Kautxua eta plastikoak	-5,1
13 - Makineria eta tresneria	9,9
14 - Garraio-materiala	-7,1
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	6,8
12 - Material eta tresneria elektrikoa	3,4
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	9,4

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Iraileko Industria produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Gipuzkoan (% 8,3ko igoera) eta Bizkaian (% 5,6koa). Araban, berriz, % 9,4 jaitsi da.

2021eko lehenengo bederatzi hilabeteetako metatutan, Gipuzkoa hazi da gehien (% 14,6), gero Bizkaia (% 10,3) eta, azkenik, Araba (% 9,8).

INFORMAZIO OHARRA

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, iraileko indizea laginaren % **91,72ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62